

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA

Hautaketa eta Garapena

Vitoria-Gasteizko Udaleko legelari nagusiaren kategorian sartzeko salbuespenezko barne-sustapeneko hautaketa-prozesuaren deialdia eta oinarri arautzaileak onartzea, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen hamabigarren xedapen iragankorraren babesean

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2025eko otsailaren 7ko erabakiaren bidez, legelari nagusiaren bost dotazio barne-sustapenaren bidez betetzeko lan-eskaintza publikoa onartu zuen (Administrazio Bereziko Eskala, Azpieskala Teknikoa, goi-mailako teknikaria, -2110A-A1 taldea, 3. hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-datarik gabe).

Tokiko Gobernu Batzarraren erabakian xedatzen denez, lanpostu horiek barne-sustapen bidez beteko dira, eta Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen hamabigarren xedapen iragankorrean xedatutakoa aplikatuko da, non salbuespenezko barne-sustapen horizontala ezartzen baita A sailkapen-taldearen barruan.

Xedapen horretan hau ezartzen da: salbuespenez, eta lege hau onartu eta gero euskal administrazio publikoek iragartzen dituzten ondoz ondoko bi enplegu publikoko eskaintzen esparruan soilik, administrazio horietako funtzionarioak A sailkapen-taldeko kidego edo eskala batekoak badira eta sailkapen-talde bereko beste kidego edo eskala batzuetako funtzioak betetzen badituzte, kidego edo eskala horietan sartu ahal izango dira merezimenduak soilik baloratzen dituzten proben bidez, betiere beharrezkoa den titulazioa baldin badaukate eta eskatutako gainerako betekizunak betetzen badituzte.

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak — Tokiko Gobernua Eraberritzeko Neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legearen bitartez aldatua — 127.1.h. artikuluan xedatzen duenez, Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio enplegu publikorako eskaintza onestea, baita langileak hautatzeko proben eta lanpostuak betetzeko lehiaketan oinarriak onestea, baita langileen inguruko bestelako erabakiak hartzea ere, beste organoren bati aitortu ez bazaizkio.

Hori dela eta, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak — Tokiko Gobernua Eraberritzeko Neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua — 127. artikuluan aitortzen dizkidan eskumenez baliatuz, eta Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2023ko ekainaren 22ko erabakiaren bitartez nire esku utzitako aginpidea betez, honako hau ebatzi dut:

1. Onestea legelari nagusiaren kategorian salbuespenezko barne-sustapen horizontalaren bidez sartzeko deialdia, hautaketa-prozesua arautzeko oinarriak eta eranskinak, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen hamabigarren xedapen iragankorraren babesean.
2. Deialdia eta oinarriak ALHAOn argitaratzeko agintzea eta, hartara, hasiera ematea eskabi-deak aurkezteko epeari.
3. Ebazpen honen kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik, edo, aukeran,

berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte-egunaren biharamunetik; horren berariazko ebazpenaren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, errekurtsoa ezesten duen ebazpena argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Vitoria-Gasteizen 2025eko ekainaren 24an

Funtzio Publikoaren Arloko zinegotzi ordezkaria

JUAN IGNACIO ARMENTIA FRUCTUOSO

I. ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRIAK

Lehena.- Deialdiaren xedea.

1.1. Deialdi honen xedea da Gasteizko Udaleko legelari nagusiaren kategoriako 5 plaza betetzea (eskala: administrazio berezia; azpieskala: tekniko; mota: goi-mailako teknikaria – 2110C – A1 taldea). Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko otsailaren 7an onetsi zuen lanpostu horien eskaintza (2025eko otsailaren 24ko ALHAO, 22. zenbakia).

1.2. Deialdi hau barne-sustapen horizontaleko hautaketa-prozesua da, merezimenduen balorazio eskusiboa duten proben bidezkoa, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen hamabigarren xedapen iragankorrean xedatutakoarekin bat. Xedapen horrek salbuespenezko barne-sustapen horizontala ezartzen du A sailkapen-taldearen barruan.

1.3. Deialdiari buruzko informazioa:

- Webgunean: www.vitoria-gasteiz.org/hautatzeprosesuak.
- Herritarrei laguntzeko bulegoetan: San Antonio kaleko 10.ekoa, gizarte-etxeak, Ariznabarreko kiroldegia eta udalaren bulego teknikoak (Teodoro Dublang Margolariaren kalea 25).
- Argibideetarako telefonoan: 010 (Gasteiztik deituz gero), edo 945 161616 (Gasteiz kanpotik).

Bigarrena. Betekizunak.

Betekizun hauek guzti-guztiak bete beharko dituzte izangaiek:

2.1. Gasteizko Udaleko karrerako funtzionarioa izatea, Administrazio Orokorreko Eskalako A1 lanpostu baten titularra izatea, legelari nagusi zereginak egitea edo egin izana, jatorrizko taldean zerbitzu aktiboan edo antzeko egoera batean egon izana, eta bertan zerbitzuan bi urtez jardun izana.

2.2. Eskabideak aurkezteko epea amaitzean zuzenbideko lizentzia edo gradua izatea, eta unibertsitateko abokatutza-masterra.

2.3. Dosier zigortzaileraren bat dela medio administrazio publikoen zerbitzutik baztertuta ez egotea, ezta funtzio publikoak betetzeko gaitasungabetuta ere, ez eskabideak aurkezteko epean, ez hautaketa-prozesuaren zati batean edo osotasunean.

2.4. Zereginak betetzeko gaitasun funtzionala edukitzea, eta lanpostuari dagozkion zereginak egitea galaraziko lukeen osasun arazorik ez edukitzea. Segurtasun, Higiene eta Ergonomia Zerbitzuak erabakiko du gaitasuna, lanpostuaren arabera.

2.5. Deialdiko lanpostuen hizkuntza-eskakizunak (euskara). Hizkuntza-eskakizuna betetzeko data igaroa duten lanpostuetarako lehiatzen direnek, Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatua ez badute, hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko hautaketa-prozesuaren barruan deitzen diren probak gainditu beharko dituzte, edo ziurtagiri ofizialaren bidez egiaztatu.

Hizkuntza-eskakizuna egiaztatua dutenen kasuan, deialdiko lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna (3. HE, C1) egiaztatzeko lehen proba baino lehenagokoa izan beharko da egiaztatua duten hizkuntza-eskakizun horren data. IVAPEk emandako 3. hizkuntza-eskakizunaren ziurtagiria dutenek, edo Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko C1 mailarekin parekatutako euskararen jakite-maila egiaztatzen duten titulu edo ziurtagiri ofizialen bat dutenek, baita Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek ere, berariazko baimena emango diote Gasteizko Udalari Erregistro horretan egiaztatzeko.

Egiaztapen hori egitea baimentzen ez dutenek dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko dute epaimahaiak hala eskatzen dionean. Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan —euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteko— xedatutakoaren babesean hizkuntza-eskakizunak egiaztatu nahi dituztenek dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute, baldin eta horri dagokion ariketa egin aurretik egiaztatu badute.

IVAPEk emandako hizkuntza-eskakizunaren ziurtagiriarengatik edo Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko maila egiaztatzen duen titulu edo ziurtagiriarengatik lehiaketa-fasean adierazitako puntuazioa emango da, betiere euskara-proba egin aurretik egiaztatu bada.

2.6. Inskripzio-tasa. Hutsik dauden lanpostuen jabe izango direnak hautatzeko lehiaketa, oposizio eta oposizio-lehiaketetan parte hartu ahal izateko Gasteizko Udalak finkatuak duen tasa (7.13 tasa) ordaindu izana (zein titulazio taldetarako lehiatzen den, horri dagokiona) eskabideak aurkezteko epearen barruan.

2.7. IT txartelak. IT 05 udal-multzoko ziurtagiriak (Windows XP, internet oinarritzkoa, Word XP oinarritzkoa, Excel XP oinarritzkoa eta Power Point, edo goragoko edo geroagoko bertsioak). Egiaztapenak ofizioz eskatuko zaizkio erakunde ziurtagiri-emileari. Horiek eskuratzeko gehieneko epea 3 hilabetekoa izango da, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik.

Hirugarrena. Eskabideak aurkeztea.

3.1. Hautatze-prozesuan parte hartu nahi dutenek Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org/hautatze-prozesuak) tramitatu beharko dute eskabide elektronikoa.

3.2. Hogei egun balioduneko epea egongo da, deialdiaren iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta. Ondorio horietarako, igande eta jaiegunez gain, larunbatak ez dira egun balioduntzat hartuko.

3.3. Probak zein hizkuntzatan —euskaraz ala gaztelaniaz— egin nahi dituzten adierazi beharko dute izangaiek eskabidean. Atal horretan ezer adierazten ez badute, probak gaztelaniaz egin nahi dituztela ulertuko da.

3.4. Tasaren ordainketa nominala izango da, eta indibidualizatua lortu nahi den plaza bakoitzeko. Eskabidea aurkezten denean jasoko den ordaintzeko agindua baliatuz ordainduko da.

3.5. Behar den dokumentazioa ofizioz bilduko da espediente pertsonaletik eta elkarreragingarritasun-sistemen bidez.

3.6. Eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdian eskatutako baldintzak eta betekizunak onartzeko konpromisoa. Inork datu faltsurik ematen badu aurkeztutako dokumentazioan, hautatze-prozesutik kanpo utziko da.

3.7. Izangaiek oinarri hauetan eskatutako baldintzak onartzen dituzte eta, eskabidea formalizatzen dutelarik, onartzen dute Gasteizko Udalak ahalmena duela erregistro ofizialetan kontsulta telematikoak egiteko titulazio akademiko ofizialak, hizkuntza-eskakizunak, emandako zerbitzuak, gidabaimenak eta abar egiaztatzeko, kontsulta-modalitate hori ezinezkoa denean izan ezik; kasu horretan dokumentazioa eskatuko baitzaio.

Laugarrena. Borondatezko ariketak eta egokitzapenak.

4.1. Borondatezko euskara-proba. Dagokion egiaztagiria ez dutelarik hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probak egin nahi dituzten izangaiek —betekizuna nahiz merezimendua izan— eskabidean adierazi beharko dute; izan ere, ez zaie horietan parte hartzeko aukerarik emango eskabideak aurkezteko epean hala adierazten ez dutenei. Eska daitezkeen gehieneko maila lortu nahi den plazari dagokiona da.

Bosgarrena.- Onartuen eta baztertuen zerrenda.

5.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du Funtzio Publikoaren zinegotziak, eta egoitza elektronikoan ("Nire hautaketa-prozesuak") argitaratzeko aginduko, bidenabar adierazten delarik izangaiek 10 egun baldioduneko epea izango dutela akatsak erreklamatu eta zuzentzeko, halakorik gertatu bada.

5.2. Erreklamazioak aurkezteko epea igaro eta horiek ebatzi ondoren, hautagai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onartuko du Funtzio Publikoaren zinegotziak, baztertuta geratzeko arrazoiak aipamenarekin batera.

Hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, eta aukerako berraztertze-errekurtoa, hilabeteko epean, egoitza elektronikoan ("Nire hautaketa-prozesuak") argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Zerrendan agertzeak ez du esan nahi interesdunei hautaketa-prozesu horietan eskatzen diren betekizunak betetzen dituztela aitortzen zaienik. Aurkeztu beharreko dokumentaziotik ondorioztatzen bada ez dutela betekizunen bat betetzen, galdu egingo dituzte prozedura honetan parte hartzetik erator daitezkeen eskubide guztiak.

Seigarrena. Epaimahai kalifikatzailea.

6.1. Epaimahaia honako hauek osatuko dute: Giza Baliabideen buruak (lehendakaria izango da), hiru kide teknikok, idazkariak eta horien ordezkoeak.

6.2. Inpartzialtasun- eta profesionaltasun-printzipioa bete beharko dute epaimahaioek. Hautaketa-organoen osaera orekatua izango da emakumeen eta gizonen artean, eta sexu bakoitzak gutxienez ehuneko berrogeiko ordezkaritza izango du. Hautaketa-organoetako kide guztiek trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia izan beharko dute, eta horietako batek, gutxienez, prestakuntza edo esperientzia izan beharko du enplegu publikoaren arloko hautaketan. Espezialitate-printzipioa betetzen dela zainduko da. Epaimahaikideen erdiak, gutxienez, lanpostuan sartzeko eskatzen den titulazioaren jakintza-arlo bereko titulazioa izan beharko du, eta guztiek ere maila akademiko berekoa edo goragokoa.

6.3. Aholkulariak hartzerik izango du epaimahaiak hala egitea beharrezkotzat jotzen duen saioetarako. Beren espezialitate teknikoetan baino ez dira arituko aholkulari horiek. Epaimahaiak Udalaren Berdintasun Zerbitzuaren berdintasun-arloko aholkularitza izango du nahitaez.

6.4. Epaimahaiak erabakiko ditu arau hauek aplikatzean sortzen diren zalantzak oro, baita arautu gabeko kasuetan nola jokatu ere.

6.5. Epaimahaiko kide guztiek izango dute hitza eta botoa. Berdinketarik izanez gero, epaimahaiburuek kalitateko botoa izango du; idazkariak, berriz, prozedura-gaietan baino ez du botoa izango.

6.6. Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendarekin batera emango da argitara epaimahaikide eta ordezkoen izenen zerrenda.

6.7. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen esku utziko da hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probak egitea. Egiaztapen horren ondorioetarako, mahaikide bat izendatuko da, aipatutako erakundeak proposatuta.

6.8. Epaimahaia ezingo da eratu, ezta jardun ere, bertako kideen erdia baino gehiago, titular nahiz ordezko, bertan ez badira. Gainera, ezinbestekoa izango da epaimahaiburua eta idazkaria bertan izatea.

6.9. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 23. eta 24. artikuluetan aurreikusitako kasuetan, epaimahaikideek ezingo dute parte hartu, eta deialdia egin duen agintariari eman beharko diote horren berri. Gainera, izangaiek haiek errefusatzea izango dute.

6.10. Izangairen batek deialdian ezarritako betekizunen bat betetzen ez duela jakiten badu epaimahaiak hautaketa-prozesuko edozein unetan, hura baztertzeko proposamena egin beharko dio horretarako eskumena duen organoari —aldez aurretik interesdunari entzunaldia eskaini beharko dio—, eta izangaia egindako okerrean nahiz faltsutasunen berri eman.

6.11. Prozesuaren edozein faseri dagokion jatorrizko dokumentazioa eskatu ahaliko du epaimahaiak hautaketa-prozesuko edozein unetan, edozein epaimahaikidek hala eskatzen badu.

6.12. Epaimahaiko lehendakaria edo haren ordezkoa ordeztu beharra badago —kargua hutsik geratu delako, bertan ez direlako, gaixorik daudelako edo legezko beste edozein arrazoiengatik—, maila goreneko epaimahaikidea izango da ordezkoa, eta maila berekoen artean, zaharrena. Epaimahaiko idazkaria ordeztu beharra badago, epaimahaiak gehiengoz erabakitzen duen kideak ordeztuko du.

6.13. Egoitza elektronikoa (“Nire hautaketa-prozesuak”) izango da erabakiak, deiak nahiz bestelakoak argitara emateko lekua: www.vitoria-gasteiz.org/hautatzeprosesuak.

6.15. Lehenengo saioan, barne funtzionamendurako araudia onetsiko du epaimahaiak.

6.16 Epaimahaietan parte hartzeagatik, Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan —zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzkoa— aurreikusitako kalte-ordainak jasotzeko eskubidea izango da.

Zazpigarrena. Jakinarazpenak.

7.1. Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org/hautatzeprosesuak) egongo dira eskuragarri oinarri hauek, bai eta zereginen katalogoa eta egokitutako jotako gainerako dokumentazioa.

7.2. Ezingo da epaimahaikideekin banaka harremanetan jarri, ez zuzenean ez hirugarrenen bitartez, hautaketa-prozesuarekin zerikusia duen edozein gaiz aritzeko. Hautaketa-prozesuaren inguruan sor daitezkeen gorabeherak idatziz azalduko zaizkio epaimahaiari, eta hark erabakiko du dagokiona, kide anitzeko organoa den aldetik.

Zortzigarrena. Hautaketa-prozesua.

Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen hamabigarren xedapen iragankorarekin bat, salbuespenez, eta lege hau onartu eta gero euskal administrazio publikoek iragartzen dituzten ondoz ondoko bi enplegu publikoko eskaintzen esparruan soilik, administrazio horietako funtzionarioak A sailkapen-taldeko kidego edo eskala batekoak badira eta sailkapen-talde bereko beste kidego edo eskala batzuetako funtzioak betetzen badituzte, kidego edo eskala horietan sartu ahal izango dira merezimenduak soilik baloratzen dituzten proben bidez, betiere beharrezkoa den titulazioa baldin badaukate eta eskatutako gainerako betekizunak betetzen badituzte.

Baloratuko diren alderdiak:

I. Memoria: 25 puntu, gehienez. Hamabi orrialde izango ditu gehienez, eta ezaugarri hauei jarraiki aurkeztu beharko da: A-4 tamainan maketatuta; 2,0 cm-ko goiko/beheko marjina eta 2,5 cm-ko ezkerreko/eskuineko marjina, Times New Roman letra-tipoa, 12 tamaina, lerroarte bakuna lerro artean eta bikoitza paragrafo artean. Memorian, lanpostuaren zereginen eta horiek behar bezala betetzeko behar diren baldintza eta bitartekoen analisia

egin behar da, lanpostuaren deskribapenean oinarrituta. Halaber, barne hartu behar ditu izangaiaren iritziz legelari lanpostua dagoen zerbitzuaren antolaketa eta lan-sistema hobetuko duten proposamenak.

Dokumentu osoa hartuko da kontuan memoria baloratzeko:

- a) Egitura eta idazketa: Baloratu egingo dira espezialitatearen edo lanbide-eremuaren berezko terminologia zehatza erabiltzea, adierazpenen aberastasuna eta aurkeztutako memoriaren lengoaiaren zuzentasuna.
- b) Edukia: Baloratu egingo dira lanpostuari buruzko ezagutza, ezaugarriak, baldintzak, garatzeko behar diren bitartekoak eta lana antolatzeko plana.

II.- Esperientzia: 25 puntu, gehienez. Antzintasuna baloratu egingo da; 0,007 puntu emango dira administrazio publikoan legelari zereginetan egindako egun bakoitzeko.

III.- Gradu pertsonala: 2,5 puntu, gehienez. Gasteizko udalean gradu pertsonal batzuk finkatuta izatea baloratuko da. 24tik gorako gradu pertsonal finkatua bada 1,25 puntu emango dira hortik gora finkatutako gradu bakoitzeko.

IV.- Euskara:

Euskara-maila hauek izatea baloratuko da:

- 3. HE (C1): 6.3 puntu
- 2. HE (B2): 5.2 puntu
- 1. HE (B1): 2.6 puntu

Hautaketa-prozesua gainditzeko 10 puntu lortu beharko dira gutxienez.

Bederatzigarrena.- Egiatagiriak aurkeztea.

9.1. Egiatagiriak espediente pertsonaletik eta erregistro ofizialetatik eskuratuko dira. Hala egin ezin izatera, epaimahai kalifikatzaileak interesdunari eskatuko dizkio.

Hamargarrena.- Emaizak argitaratzea.

10.1. Epaimahaiaren argitalpenak egoitza elektronikoan egingo dira ("Nire hautaketa-prozesuak").

10.2. Epaimahaiarekiko komunikazioak posta elektronikoz egin ahalko dira, eta baliozkoak izango dira baldin eta eskabidean ondorio horietarako erregistratu den helbide elektronikotik bidaltzen badira, eta zuzen hartu dela bermatzen duen erantzuna jaso bada posta elektronikoz. Alegazioak edo erantzunak jaso izanaren baieztapena —bi noranzkoetan— ezinbestekoa da komunikazioa baliozkotzat jotzeko. Epaimahaiak erreferentziako helbide elektronikoa adieraziko du bere argitalpenetan, eta gaian erabiltzeko kodeak ere ezarri ahalko ditu, mezuak hobeto kudeatu eta antolatzearren.

10.3. Jakinarazpenak posta elektronikoz igorritik jakinaraziko zaie deialdi jakin batera aurkezten diren izangai guztiei egoitza elektronikoan ("Nire hautaketa-prozesuak")

argitalpen berriak egin direla. Abisuak ez jasotzeak ez du baliogabetu edo aldatuko argitalpenean ezarritako epea.

10.4. Behin-behineko emaitzak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, izangaiek hamar egun balioduneko epea izango dute egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko, dagokion epaimahaiaren aurrean. Erreklamazioak aurkezteko epea amaituta, epaimahaiak behin betiko emaitzak onartuko ditu, eta behin betiko emaitzak argitaratzeko aginduko du. Epaimahaiaren erabaki horren bidez erantzuntzat joko dira aurkeztutako erreklamazioak. Ez da erantzun pertsonalizaturik emango.

10.5. Behin betiko emaitzen erabakiaren aurka, izangaiek gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango diote Gasteizko Udaleko Funtzio Publikoko zinegotziari, hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hamaikagarrena.- Izendapen proposamena eta lanpostuaz jabetzea.

11.1. Agiriak aurkezteko epea amaituta, eta gehienez ere 30 egun balioduneko epean, epaimahaiak hautaketa-prozesua gainditu dutenen aldeko izendapen-proposamena egingo du.

11.2. Epaimahaiak izendapen-proposamena egin eta lanean hasteko data zehaztu eta argitaratu ondoren, izendatutako pertsona karguaz jabetu beharko da, horretarako ezarritako epean, eta gehienez 30 egun baliodun atzeratu ahalko du, lanean hasteko data argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

11.3. Destinoek behin betiko izaera izango dute, eta lehiaketa bidez lortutakoen baliokideak izango dira ondorio guztietarako.

Hamabigarrena. Aldi baterako kontratazioetarako zerrendak.

12.1. Deialdi honek ez du kontratazio-zerrendarik sortuko.

Hamahirugarrena. Gardentasuna eta datu pertsonalak babesteko politika.

13.1. Oinarri hauek, baita horiek gauzatzearen ondorio diren administrazio-egintzak ere, langileak hautatzeko eta aldi baterako kontratazioetarako zerrendak kudeatzeko prozesuetan datu pertsonalak babesteko udal protokoloari lotuta daude.

13.2. Izena emateko inprimakia aurkezte hutsarekin, parte-hartzaileak argi adierazten du prozesuaren gardentasun-baldintzak eta datu pertsonalen babesaren murriztapena onartzen dituela.

Hamalagarrena.- Aplikatzekoak diren lege-arauak.

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Jauregiaren Oinarriak arautzen dituenak.

- 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, toki administrazioari buruz indarrean dauden xedapenen testu bategina.

- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.

- 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena.
- 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoa Eraberritzeko Neurriei buruzkoa.
- 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Eusko Legebiltzarrarena, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa.
- 19/2024 Dekretua, otsailaren 2koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa.
- 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena.
- 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriko, 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duena.
- 364/1995 Errege Dekretua, martxoaren 10ekoa, Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionario zibilen lanpostuak bete eta lanbide sustapenerako Erregelamendu Orokorra onartzen duena.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko; eta 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Eusko Legebiltzarrarena, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa.
- Oinarri hauek.

Hamabosgarrena.- Aurkaratzeak.

14.1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean adierazitako moduan eta kasuetan aurkaratu ahal izango dituzte interesdunek oinarri hauek, deialdia bera nahiz horren edo epaimahaiaren jardueraren ondorio diren egintzak.